

DKB! – Durango Kulturaz Blai!

Durango Kultura Agenda app-a

- **Zer da DKB! – Durango Kulturaz Blai!**

Durango Udalak kultura ekitaldien berri emateko kaleratu duen telefono mugikorretarako aplikazioa.

iOS eta Android sistemei egokituta dago.

1

- **Ze informazio zabalduko du?**

- Udaleko sailetatik eta Udal Erakunde Autonomoetatik antolatzen diren kultura ekitaldiak.
- Durango udalarekin harremana duten eragileek antolatutako kultura ekintzak.

- **Ze informazio ez da zabalduko?**

- Auzoetako jaietan edo bestelako ospakizun zabalagoen gerizpean antolatzen diren kirol frogak edota lehiaketa gastronomikoak, adibidez.
- Kirol frogak.
- Ekitaldi itxiak. Elkarteko kideei bakarrik zuzentzen zaizkien ekitaldiak.
- Udalarekin harremanik ez duten eragileek antolatutakoak.

- **Nola egin zure informazioa publikatzeko?**

agenda@durango.eus

- Goiko helbide horretara bidali zure proposamena.

- **Ze informazio bidali?**

- Ahal dela formularioan jar itzazu eskatzen zaizkizun datu guztiak.
- Egun bakoitzeko orri bat bete.
- Informazio editagarria bidali.
- Eta pdf-ak badituzu ere bai.
- Irudiak 800 x 800 pikeletako irudiak dira aproposenak
- Linkak....

DKB!- ERABILERA ESKUORRIA

- **Noiz publikatuko da zuk bidalitako ekitaldia?**

- Ahal bait arinen bidaltzea eskertuko genuke, informazio guztia kudeatzeko denbora izan dezagun.
- Hala ere zuk data jakin batzuetan publikatzea gura badozu jarri zure eskaera orrian.
- Udaletxean mezua jaso eta 5 bat egunetara publikatuko da, beti ere kontutan izan lan egutegia.